

ERABAKIA, 2020ko azaroaren 23koa, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Gerentearena, **BIOKIMIKA ETA BIOLOGIA MOLEKULARRA SAIL** arako **F 676 Saileko idazkaria** lanpostua aldi baterako zerbitzu betekizunen bidez betetzeko deialdian parte hartzeko **ONARTUTAKO ETA BAZTERTUTAKO IZANGAIEN BEHIN BETIKO ZERRENDA** onartzeko dena.

Deialdia 2020ko azaroaren 3ko Erabakiaren bidez egin zen, UPV/EHUko gerenteak emandakoa.

ARAU APLIKAGARRIAK

- Akordioa, 2017ko uztailaren 18koa, AZPko funtzionarioaren plangintza batzordearena, AZPko funtzionarioei zerbitzuen eginkizunak esleitzeko prozedura barematua ezartzeko buruzkoa 2017ko irailaren 28an Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak berretsia (2018ko maiatzaren 21eko EHAA)..
- Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreak 2017ko urtarrilaren 25ean hartutako erabakia, gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu-arloak zehazteko eta eskumenen eskuordetzeko dena (2017ko otsailaren 3ko EHAA) .

Beraz, Gerentzia honek,

ERABAKI DU

Aipatutako deialdian onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda argitaratzea, UPV/EHUko web-orrian, Administrazio eta zerbitzuetako langileak. Hautaketa eta hornikuntza. Barne-deialdiak.

Erabaki honek administrazio bidea agortzen du, eta bere aurka, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa aurkez dakiok Gerentzia honi hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke zuzenean dagokion Administrazioarekiko Auzien Epaitegietan. Horretarako hilabete biko epea izango da, erabaki hau UPV/EHUko web orrian argitaratu eta biharamunean kontatzen hasita.

Leioan, 2020ko azaroaren 23an

Errektorearen eskumenak eskuordetuta: 2017ko urtarrilaren 25eko erabakia (2017ko otsailaren 3ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria).

UPV/EHUko Gerentea

Miren Lorea Bilbao Arteche



I. ERANSKINA

ONARTU ETA BAZTERTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDA

ZERBITZU BETEKIZUNA - 20/11/3 (e)ko DEIALDIA

1783

F 676

Saileko idazkaria

Hor. 31

HE

BIOKIMIKA ETA BIOLOGIA MOLEKULARRA SAILA

(Gurakoei dagokien lehentasun-taldearen arabera ordenatua)

a) Deitutako lanpostuaren talde eta eskala bereko karreradun funtzionarioak.

lehentasuna

EZ DAGO ATAL HONETAKO GURAKORIK

b) Deitutako lanpostuaren talde bereko baina eskala desberdineko karreradun funtzionarioak

lehentasuna

EZ DAGO ATAL HONETAKO GURAKORIK

c) Deitutako lanpostuaren beheragoko hurrengo talde eta eskalako karreradun funtzionarioak.

lehentasuna

EZ DAGO ATAL HONETAKO GURAKORIK

* BAZTERTZEKO ARRAZOIAK: 1: Epez kanpo aurkeztutako eskabidea; 2: Deialdian onartzen diren talde edo eskalen batean karreradun funtzionarioa ez izatea; 3: Lanpostua betetzeko eskatutako titulazioa ez edukitzea; 4: Eskatutako hizkuntza-eskakizuna eskakizuna ez edukitzea; 5: UPV/EHUko funtzionarioa ez izatea; 6: Deialdia argitaratu aurreko urtebetean, prozedura honen bidez, zerbitzu betekizunetarako izendapena izatea; 7: Eskatzen den hizkuntza jakitearen ziurtagiria ez aurkeztea. 8. Erregistratu gabeko eskabidea. 9. Deialdiari uko egitea. 10: Beste zerbitzu betekizuneko deialdian esleipendua.